

MENDEZONA'REN ABADETZAKO 50N. URTE-URRENA

Amaitu dan illearen askenengo astean izan da, gizon ospetsu onen omenaldi bat egiteko astea.

Bere taldekoak ta ganerako gazte, ikasle, gurasoak aste osoan euki dabez batzarrak, itzaldiak, bazkariak ta abar bere izenean.

Gure Uri nagusiko Aginpide guztiak omenaldi orretan egon dira aldi baten edo bestean.

Lerro onein bitartez gure "ZER" be alkartuten da abade ospetsu orren omenaldiagaz, apur bat goralduteko.

Biotz biotzetik, egun alaiak igaro dagizala ta urte askotarako izan daitela Euskalerraren alde lana egiteko ta gaste askoren onerako.

AZKENEZ

Indautxu'ko ikasleak, euren ikasketaren amaieran, eskari asko ta aundiak eukiten dabez.

Langintzetako Zuzendariak azkar ibiltzen dira, urtearoa amaitu baiño len, ikaslerik onenak euren lantegira eroateko.

Orrek esan nai dau, lanpostua ziur daukiela, ikasgiriak onak izan ezker.

Ziurtasun au ikasleentzako garrantzi aundikoa da.

Zergaitik? Aziera on-ona, berezia eukiten dabelako berton.

Ganera azkenengo urteetan, urteera asko daukiez lantegietara andik illebeta batzuetara zelako lana egin bear daben jakiteko.

Zenbat ta geiago ikusten daben, obeto men egingo dabe.

Orrezaz ganera, mutillak bizkortuteko, jokabidea obeto eroateko, zintzoak izateko euren zer egin bearean, bulegoko ate ganean ipinita dago esaera au, izki larreakaz:

Erderaz: No te importe quién eres,
sino hasta dónde puedes llegar.

Euskeraz: Ez ardurarik izan zer zaran,
Noraiño elduko zaran baiño.

Apur bat gogoketan asi ezker, jakituria oso aberatsa da.

Gazte askorentzat ziztaillu ta pizgarri aundia be bai.

Batek baiño geiagok esango dau: Jokabide ona eroan eskero, urrun elduko naz. Olako asmoak egoak ipinten dautsez askori.

Olako mutillak eltzen dira gorengo mailletara.

Barriz gure PERNANDO MENDEZONA'ri:

Zeure Abadetzako (x)n. urte-urrengoan:
Zorionak ta urte askotarako
Zeure lanpostu orretan. Agur.

Bilbo'n 1985'garreneko Epaillaren 17'an.

ETXEBERRI'TAR ISIDOR

EUZKO - ENDA

Euzkalerrian jayo, zanetan euzko odola, Euzkeraz itz-egiten... Ondiño ezta naikoa.

Asabaen bizitza oldoztu sarri askotan, Zu be duiña izateko, aren antzekoa. Uriko irri farra-jai otsatik aldendu. Gallur aize garbia ta bakartasunak Apaindu eben antziñan, euzko-gizon Jatorrak. Garai izugarritzko-egiñak ixillian eginda, aizturik dagoz, oin, euren izenak.

Euren buruen aintza billatu ezebenak. Danak bakian bizi anaitasunean. Ludiko biztanlentzat gerturik euzko-odolak "O" ikurra ta baietza, dauko geyenetan.

Mundu onetako ospiak guzurrezkoak dira; Euren atzian dabiz bakarrik zoruak. Berez andia dana egiten da txikia... (Zeru-lur Egillea, asto baten ganian sartu zan Jerusalem uriko jayetan!).

Biotz andi ta apala, kistau ona bezela bizi, ta izango zara gaurko Euzkelduna.

UTARSUS